Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

3883

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 9koa, Baliabide Orokorren zuzendariarena; honen bidez, dei egiten zaie zenbait aginduren aurkako alegazioak ezesten dituen Herrizaingo Sailaren aginduaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan azaltzeko interesa izan dezaketenei; agindu horiek 2005eko urriaren 4ko Agindua nahitaez betearazteko prozedurari hasiera emateko eta ohartarazpena egiteko dira. 2005eko urriaren 4ko agindu horretan deklaratu egin zen Laudioko ertzain-etxea eta suhiltzaileen parkea eraikitzeko lanen ezkutuko akatsengatiko erantzukizuna (I 12/07/08- Vc2 /04/ 2000).

Ikusi egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2009ko apirilaren 1ean egindako errekerimendua, prozedura arruntari buruzko 98 Legearen barruan Jose M.ª Mentxaca Araluce jaunak aurkeztutako 481/09-1 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa dela-eta. Errekurtso hori, 2005eko urriaren 4ko Agindua nahitaez betearazteko prozedurari hasiera emateko eta ohartarazteko aginduen aurka aurkeztu zen. 2005eko urriaren 4ko agindu horretan deklaratu egin zen Laudioko ertzain-etxea eta suhiltzaileen parkea eraikitzeko lanen ezkutuko akatsengatiko erantzukizuna (I12/07/08-VC2/04/2000 espedientea). Hortaz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeko 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoa betez, honako hau

EBATZI DUT:

Prozedura honetan interesa izan dezaketen guztiei 9 eguneko epea ematea, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, prozeduran azaldu eta euren interesen defentsa egiteko, egoki irizten badiote.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 9a.

Baliabide Orokorren zuzendaria,
MARÍA ANTONIA GINER CUCARELLA.

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

3883

RESOLUCIÓN de 9 de junio de 2009, de la Directora de Recursos Generales, por la se emplaza a los posibles interesados en el contencioso-administrativo relativo a la orden del Departamento de Interior por la que se desestiman las alegaciones formuladas contra ordenes de apercibimiento y de inicio del procedimiento de ejecución forzosa de la orden de 04-10-2005, por la que se declaró la responsabilidad quincenal de las obras de construcción de la futura Comisaría de la Ertzaintza y Parque de Bomberos de Llodio (I 12/07/08- Vc2 /04/ 2000).

A la vista del requerimiento formulado por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de fecha 01-04-2009, en relación con el recurso contencioso-administrativo que se sustancia en le procedimiento ordinario Ley 98/ 481/09-1, interpuesto por D. Jose M.ª Mentxaca Araluce contra las órdenes de apercibimiento y de inicio del procedimiento de ejecución forzosa de la Orden de 4 de octubre de 2005, por la que se declaro la responsabilidad quincenal de las Obras de Construcción de la futura Comisaría de la Ertzaintza y Parque de Bomberos de Llodio (Expediente I12/07/08-VC2/04/2000), en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 48 y 49 de la Ley de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa.

SE RESUELVE:

Emplazar a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento, para que en el plazo de 9 nueve días, a contar desde el siguiente a esta publicación, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus intereses legítimos, si así lo consideran oportuno.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de junio de 2009.

La Directora de Recursos Generales,
MARÍA ANTONIA GINER CUCARELLA.